

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK 2019KO APIRILA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %16,4 gehitu ziren 2019ko apirilean

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %8,6ko gehikuntza izan da sarreretan apirilean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2019ko apirilean 26.730 izan ziren, 2018koaren aldean %16,4 gehiago. **Baloratzeko orduan, aurten Aste Santua apirilean izan dela behar da gogoratu, eta iaz martxoan.** Martxoan eta apirilean guztira %3,0 igo ziren gualdiak.

Bizkaian %26,4 gehitu dira; Gipuzkoan, %20,0; eta Araban %0,2.

2019ko apirilean 8.184 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %42,7ko gehikuntza. Bidaiari-sarrerak %61,6 gehitu dira Bizkaian eta %47,1 Gipuzkoan, baina Araban %9,1 gutxitu dira.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2019ko Apirila

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/04	m/m-12 (%)	2019/04	m/m-12 (%)	2019/04	2018/04
EUSKAL AE	26.730	16,4	8.184	42,7	3,27	4,00
Estatukoak	18.211	6,1	5.599	36,0	3,25	4,17
Atzeritarrak	8.519	47,0	2.584	59,6	3,30	3,58
ARABA/ÁLAVA	6.918	0,2	1.021	-9,1	6,78	6,15
Estatukoak	5.177	-15,0	879	-13,0	5,89	6,03
Atzeritarrak	1.741	113,8	142	25,7	12,30	7,23
BIZKAIA	10.654	26,4	4.219	61,6	2,53	3,23
Estatukoak	6.767	12,2	2.756	48,7	2,46	3,26
Atzeritarrak	3.887	62,1	1.463	92,9	2,66	3,16
GIPUZKOA	9.159	20,0	2.944	47,1	3,11	3,81
Estatukoak	6.267	24,2	1.964	56,7	3,19	4,03
Atzeritarrak	2.891	11,9	980	31,1	2,95	3,46

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia, apirilean, 3,27 egunekoa izan da, 2018ko apirilean 4,00 zelarik. Araban iazko 6,15 egunetik aurtengo apirileko 6,78ra luzatu da; Bizkaian 3,23tik 2,53ra laburtu da; Gipuzkoan 3,81etik 3,11ra laburtu da.

2019 apirileko turista-balantzea: sarrerak gehitu dira %8,6 eta gaualdiak %11,2

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 299.687 sarrera erregistratu dira 2019ko apirilean, %8,6ko gehikuntza aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %46,1 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %10,8 gehitu da. Gipuzkoan erkidegoko sarreraren %40,4 daude, %8,1eko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreraren %13,5 ditu, eta %3,1 igo dira.

Gaualdiek, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %11,2 egin dute gora. Gipuzkoan %12,4 igo dira gaualdiok, Bizkaian %11,2 eta Araban %7,6.

Aste Santuaren eragina ikusirik, zeina 2019an apirilean izan baita eta 2018an martxoan, komeni da, berriz, martxoko eta apirileko datuak baturik behatzea. Halatan, hotelak, landa-ostatuak eta apartamentuak batera harturik, sarrerak %6 hazi dira 2018ko aldi berarekin konparatua eta gaualdiak %5,2.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Apirila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/04	m/m-12 (%)	2019/04	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	603.142	11,2	299.687	8,6
Araba/Álava	81.842	7,6	40.397	3,1
Bizkaia	274.327	11,2	138.111	10,8
Gipuzkoa	246.974	12,4	121.179	8,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62